

Demandaren arabera, lehen mailako produktu gehiago edo gutxiago beste enpresei ordaindu beharko diegu, hauek kostu aldakorrak izango lirateke. Hasiera batean ez dakigulako gure produktuak merkatuan nola erantzungo duen.

Bestalde, kostu finko batzuk beti edukiko ditugu, lantegiaren alokairua, makinariak gastatzen duena martxan jartzen denetik eta lantegiko argia. Hauek hilabetean berdinak edo ia finkoak izango dira.

Bezereen erantzuna jakiterakoan, lehen mailako produktuak hilabetero finkoak izan daitezke, hala gure kostu guztiak finkoak izatea nahi dugu. Horrela hilabete bakoitzean ordaindu beharrekoa argi daukagu.

Guk, produzitutako unitateen kopurua handitzean, gure kostuen murrizketa lortuko dugu. Hau da, gure helburuetako bat, kostu gutxien edukitzea, irabazi gehien izateko.

Gure enpresa aurrera joan daiteke, produktuaren kalitate maila prezioarekin bat datorrelako, hau da, prezio egokia erabilitako material onarengatik

Gainera, hasiera batean bazkideen artean jarritako dirua eta laguntzei esker lortutakoa, kontuan hartu beharko ditugu kostuak zenbatekoak diren jakiterako orduan.